MERKAOÑAKO ORDEZKARITZA ZERBITZUA ETA SAAS PLATAFORMA BIDEZKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

Oñatin, 2025ek azaroaren 26an

MERKAOÑAKO ORDEZKARITZA ZERBITZUA ETA SAAS PLATAFORMA BIDEZKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.

1. Kontratuaren xedea.

Zerbitzu kontratu honen xedea elektrizitate merkatuan jarduteko Merkaoñaren **ordezkari** bat kontratatzea da, **erakunde ofizialen aurrean** jardunez (hala nola, OMIE, REE edo CNMC) eta beharrezko kudeaketa guztiak eginez. Horrez gain, **Merkaoñarentzako plataforma digital pertsonalizatu** baten garapena eta mantenua ahalbidetuko duen software baten zerbitzua ere barne hartzen du kontratuak, bertatik fakturazioa, bazkideen kontsumoak eta energia kudeaketarekin lotutako beste alderdi batzuk kudeatzeko aukera emango duena.

Kontratu honen bidez, herrian kontsumitzen den energia herrian bertan eta modu berriztagarrian sortutakoa izatea sustatu eta bultzatu nahi da, tokiko energiaren subiranotasuna eta garapen jasangarria indartuz.

Esparru juridiko batetik aztertuz, Euskal Autonomia Erkidego mailan gai honekin harreman zuzena duten eta kontuan izan behar diren bi lege garrantzitsu daude: 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa eta 1/2024 Legea, 1/2024 LEGEA, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena.

Lege hauek erronka eta xede garbia dute: berotegi efektuko gasen (aurrerantzean BEG) emisioak edo osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen emisio kutsagarriak murriztea (2021eko urriaren 26ean onetsitako 2021-2024 Trantsizio energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planarekin bat eginez, 2005. urtearekin alderatuta %30ean, hain zuzen ere). Hori lortzeko indarrean dagoen modelo energetikoa aldatu behar da, atzean utziz erregai fosilak erretzea; hura baita neurri handi batean klima aldaketaren eragileetako bat.

Baina BEG murrizketa ez da nahikoa klima aldaketari aurre egiteko, emisioak murrizteaz gain beharrezkoa da energia berriztagarrietan oinarritzea modelo energetiko berriak.

Helburu hauek betetzeko, IPCCren ebaluazioaren inguruan 2023an argitaratu den seigarren txostenaren laburpenak dioen eran, bizitza errealean egokitzapen-neurriak aplikatu behar dira, ez da nahikoa ereduetan oinarritzea. Horregatik, etorkizunera begira dauden xedeak betetzeko asmoz eta legeek ezarritako helburuekin bat egitearren Merkaoñak %100 berriztagarriak diren energiak baliatzen ditu, eta Oñatiko herritarrei energia hau hornitzeko beharrezkotzat jotzen da haren izenean arituko den ordezkaritza bat lortzea.

2. Zerbitzuen deskribapena eta irismena.

Kontratu honen bitartez Merkaoñak bi zerbitzu mota integratu nahi ditu: batetik, elektrizitate merkatuan erakunde ofizialen aurrean jardungo duen ordezkaritza-zerbitzua; eta, bestetik, erakundearen jarduera errazteko eta digitalizatzeko SaaS plataforma pertsonalizatu baten garapena eta mantenua.

a) Merkaoñaren ordezkaritza erakunde publikoen aurrean.

Entitate esleipendunak Merkaoñaren izenean jardun beharko du energia merkatuan, erakunde ofizial hauen aurrean ordezkaritza eginez: OMIE (Operador del Mercado Ibérico de Energía), REE (Red Eléctrica Española) eta CNMC (Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia). Honako eskumen hauek hartuko ditu bere gain:

- Merkatuko kudeaketa tekniko eta administratibo osoa.
- OMIE eta REEren aurrean likidazio subjektu gisa jardutea, likidazioak Merkaoñari helaraziz.
- Desadostasun edo gorabeheren aurrean kudeaketa eta erreklamazioak egitea.
- Merkatuan parte hartzeko beharrezko berme ekonomikoak aurkeztea eta eguneratuta mantentzea.
- Energia eskariaren eta soberakinen eguneroko aurreikuspena egitea, emaitza ekonomikoak optimizatzeko helburuarekin.
- Jatorri Bermeen (GdO) kudeaketa osoa: kalkulua, eskaintza bateratuaren aukera eta CNMCren aurrean transferentzia eta fakturazioa.

b) SaaS plataforma pertsonalizatua Merkaoñarentzat.

Entitate esleipendunak Merkaoñaren identitate korporatiboarekin bat datorren plataforma digitala garatu eta mantendu beharko du, erabilera intuitiboa eta segurtasun informatikoa bermatuz. Plataformaren bidez honako funtzio hauek garatu ahal izango dira:

- Bazkideen eta kontratuen kudeaketa.
- Fakturazio sistema automatizatua, kontsumoaren araberakoa.
- Kontsumoaren bistaratzea eta datuen analisia.
- Txostenen sorrera eta esportazioa.
- Funtzionalitate fiskalak.
- Web bidezko sarbidea erabiltzaileentzat, euren datuak kontsultatzeko.
- Plataforma eguneratzeko eta funtzionalitate berriak gehitzeko gaitasuna.

Esleipendunak bermatu beharko du plataforma egoera operatiboan egotea kontratuaren iraupen osoan zehar, eta baita laguntza teknikoa eta eguneratzeak ere.

3. Eskaintzetan jaso behar diren ezaugarriak eta edukiak.

a) Erakunde ofizialen aurrean ordezkaritza.

Merkaoñak merkaturatzaile gisa jardun ahal izateko, entitate esleipendunak ordezkaritza izango du erakunde ofizialen aurrean, hala nola OMIE, REE eta CNMCren aurrean, eta horien aurrean bete beharreko kudeaketa guztiak burutuko ditu. Merkaoñak merkaturatzaile bezala garatzeko ordezkaritza lanak nola burutuko diren zehaztu beharko da.

Entitate esleipendunak OMIE eta REEren aurrean likidazio subjektu gisa jardun beharko du, eta likidazio osoa helarazi beharko dio Merkaoñari. Desadostasunak sortuko balira, esleipendunari dagokio hauek bideratzea.Likidazio honek ez du gain-kargurik izango Merkaoñarentzat.

Horrez gain, likidazioen bidalketa eta egiaztapen-prozesua deskribatu beharko da, Merkaoñari informazio zehatza eta epe barruan emateko mekanismoak jasoz.

Berme ekonomikoei dagokienez, entitate esleipendunak izango du ardura beharrezko bermeak depositatzeaz OMIE eta REEren aurrean, merkatu araudien eta operazio-prozeduren arabera, kontratazioan sortzen diren betebeharrak betetzeko xedez.

b) Merkatu elektrikoko aurreikuspen eta eskaintzak kudeatzea.

Enpresa esleipendunak Merkaoñari egunero kontsumoak aurkeztu beharko dizkio, hauek berrikusi eta eguneratuz hala dagokionean eta merkatuko emaitza ekonomikoaren optimizazioa bilatuko da.

c) SaaS plataforma bat sortzea.

Enpresa esleipendunak Merkaoñaren irudi korporatiboa izango duen SaaS plataforma pertsonalizatu eta ezarria garatu beharko du, non aukera eskainiko den kontratuak, fakturak, kontsumoak eta bestelako edukiak modu egokian kudeatzeko.

Plataformak gutxienez honako funtzionaltasun hauek eskaini beharko ditu:

- Bazkideen kudeaketa osoa: kontratuak, neurketak, fakturazioa, txostenen sorrera eta web bidezko sarbide pribatua erabiltzaileentzat eta bazkideentzat.

- Kontratuak SMS bidez sinatzeko aukera.

- Nahitaezko dokumentu fiskalen sorrera automatizatua, hala nola: 560 eta 159 ereduak, udal-tasa, ESCILA eta Elektrizitatearen Gaineko Zerga Bereziaren hiruhileko aitorpena.

Plataformak etengabeko hobekuntza izateko gaitasuna izan beharko du, kostu gehigarririk gabe. Horrez gain, Merkaoñaren beharren arabera, garapen espezifikoak ezartzeko aukera eskaini beharko du, beharrezko funtzionalitate berriak gehitu ahal izateko.

d) Fakturazioa eta ordainketak

Enpresa esleipenduna izango da emandako zerbitzuetatik eratorritako fakturak jaulki, kudeatu eta kobratzeko arduraduna, eta fakturazioaren aldizkakotasuna, aplikatu beharreko zerga-araubidea, ordainketa-epeak ezarriko ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera.

e) Esleipen honen bitartez, Merkaoñak bermatuta izan behar du enpresa esleipendunaren aldetik arreta egokia jasoko duela, kontratu honen xedea modu egokian garatu ahal izateko. Helburu hori lortzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Pertsona koordinatzaile bat izendatzea, Merkaoñarekin harreman zuzena izango duena eta arreta euskaraz zein gaztelaniaz bermatuko duena.

- Gorabehera tekniko eta operatiboen aurrean jarduteko protokolo argia aurkeztea, egoerak ahalik eta azkarren eta eraginkortasunez konpontzeko.

- Bezeroarentzako arreta-kanal eraginkorrak eskaintzea, eta arreta-ordutegia lanegun guztietan bermatzea, Merkaoñaren beharrei erantzuteko moduan.

4. Nahitaezko zerbitzu gehigarriak.

Merkaturatzaile batek %100 energia berriztagarria hornitzen duela bermatu ahal izateko, urte horretan hornitutako energia guztiaren jatorri bermeak (GdO) izatea beharrezkoa da, CNMCren aurrean.

Enpresa esleipendunak Merkaoñaren izenean jatorri-bermeen(GdO) kudeaketa osoa bere gain hartuko du.

- GdO kopurua kalkulatzea.
- Urteko eskaintza bateratua egiteko aukera eskaintzea.
- CNMCren bidez egindako transferentzien ondoren fakturazioa egitea.

JOSEBA AGUDO MANCISIDOR

Firmado digitalmente por JOSEBA AGUDO MANCISIDOR
Fecha: 2025.11.27 15:10:48 +01'00'